

**ESKOLAKO OHARRAK****IHOTEAK**

Ihoteen asteburu iritsi da. Bihar otsailak 5, ostiralea hain zuzen ere, ikasleek eskolara zaku jantziak etorri behar dute. Eskolan zerbait xumea antolatu dugu, ekintza horien artean irratsaioa. Hau entzuteko aukera izango duzue bihar ostirala Oiartzun Irratian (FM106.5) goizeko 11:15etan. Bestalde, gogoratu, jardun jarraiko eguna dugula eta beraz, etxeko bazkaltiarrek diren ikasleek, eskolan 12:30etan bukatzen dutela eta jangelako bazkaltiarrek, 14:30etan. Arratsaldean eskola itxita egongo da. Azkenik, astelehenean, otsailaren 8an, jai egun izango dugu.

**ESKOLA KIROLA**

Covid19ak oraindik gure eguneroko bizitza erabat baldintzatzen baldin badu ere, gure eskolako orduz kanpoko ekintzak hastea erabaki dugu familia eta irakasleok elkarrekin osatzen dugun Batzorde Iraunkorrean. Edozein informazio beharko bazenute, Andoni da koordinatzaile berria eta bere helbide elektronikoa hau da: [eskolakirola@elizalde.eus](mailto:eskolakirola@elizalde.eus).



ESKOLA  
KIROLA

**ELIZALDETARRAK JUDO ELKARTEA**

2020/21 ikasturtea

Guraso agurgarriak, otsailean hasiko gara judo-jarduerarekin Elizalde ikastetxean.

Covid-19 protokoloa dela eta, talde gehienek astean saio bat egingo dute.

Ordutegiak:

H.H.5 urte.	OSTIRALA	13:45-14:45
L.H.1	ASTELEHENA	13:45-14:45
L.H. 2.	ASTEAZKENA	13:45-14:45
L.H. 3.	OSTEGUNA	13:45-14:45
L.H. 4. eta 5.	ASTELEHENA– ASTEAZKENA	12:30-13:30

Hileko kuota:

-astean bi egunetan, 31 euro. (bi anaia-arreba 56 €)

-astean egun bat, 20 euro. (bi anaia-arreba 34 euro) Judo-jantzirik gabe hasiko ditugu klaseak. Judokek judozko gerrikoa bakarrik ekarriko dute.

Ikasle berriei gerriko zuri bat emango diegu.

Bidali izena eta maila helbide elektronikoa honetara: [alexbarallo@telefonica.net](mailto:alexbarallo@telefonica.net)

KLASEAK HASIKO DIRA: OTSAILAK 1 (ASTELEHENA)



shutterstock

IMAGE ID: 1000121890  
www.shutterstock.com

[www.elizaldekogurasoelkarta.blogspot.com.es](http://www.elizaldekogurasoelkarta.blogspot.com.es) eta [www.elizalde.eus](http://www.elizalde.eus)

